

👁️👁️ Irakurri testua behar dituzu aldietan ondo ulertzeko.

TXOKOLATINAK



Amak txokolatina paquete bat erosi zuen eta Paulori eman zion.

- Paulo, mutil handia zara jada eta gorde zeuk txokolatina paketea. Baina kontuz ibili: ez jan denak batera.

Afalorduan honela esan zion Paulok amari:

- Ama, gaur gauean ez naiz gose...

- Ez zarela gose? Ea, zenbat txokolatina jan dituzu?

- Denak, ama.

- Denak? -esan ziona amak kexkatuta, Paulok beti betetzen zuen amaren esana-. Ez al dizut esan, bada, denak batera ez jateko?

- Eta halaxe egin dut, ama -erantzun zion Paulok, triste aurpegia erakutsiz-. Ez ditut denak batera jan. Banan-banan sartu ditut ahoan, bata bestearen atzetik.

Zeuk esan bezala!

Paulok egia esaten ari zen. Errua amak zuen, ez ziolako garbi azaldu zer nahi zuen. Eta amak onartu egin zuen. Helduek, batzuetan, ez dituzte gauzak behar bezala azaltzen

- Barkatu, Paulo -esan zion amak-. Nik hau esan nahi nuen: txokolatina guztiak gaur ez jateko, biharko eta etziko uzteko...

SILVANA CARNEVALI
(Moldatua)



Irakurri ondo galderak eta erantzun.

1. Nork erosi zituen txokolatinak?

2. Zergatik ez zen gose Paulo afalorduan?

- ☐ Arratsaldean bokata bat jan zuelako.
- ☐ Txokolatina guztiak jan zituelako.
- ☐ Txokolatina batzuk bihar eta etzi jango zituelako.

3. Nork esan zuen, amak ala Paulok?

"Ez jan denak batera."

_____ esan zuen.

*"Banan-banan sartu ditut ahoan,
bata bestearen atzetik."*

_____ esan zuen.

4. Osatu esaldiak, bi hitz hauetako bat erabiliz:

- guztiak *edo* -batzuk

- a. Amak esan nahi zuen lehenengo egunean txokolatina _____ baino ez jateko.
- b. Paulok ulertu zuen txokolatina _____ jan ahal zituela lehenengo egunean, baina banan-banan.

5. Aukeratu egia (E) ala gezurra (G) den:

E G

Paulok amaren esana betetzen du normalean.

- Amak Paulok errua zuela esan zuen.
- Amak onartu egin zuen ez ziola ondo azaldu Paulori nola jan behar zituen txokolatinak.